

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Akitaniera



ARITZ GALARRAGA

Pasa den asteko zutabea ez nuen gustura bukatu: euskarari buruz zeozer idazten dudak bakoitzean, deseroso sentitzen naiz gero. Iruditzen baitzait euskaldunok etengabe ari garela euskarari buruz, hitz egiten, are kexuka. Aspergarria ere baitzait, egia esan. Ados, hizkuntza gutxitu, eta txikitu, eta menostu bat dela, eta suspertu, eta babestu, eta nahi duzuen egin behar dela, baina zer onik ekar lezake egun osoz negar lanturuetan aritzeak? Gonzalo Tornek dio: zerbait falta bada, jar gaitezen zerbait hori egitera, eta listo. Ezin uka euskararen aferak ezinegona sortzen didala.

Halako batean iritsi zait esku artera liburuxka bat, *Vascónico-aquitano*, Joakin Gorrotxategik sinatua, Zaragozako unibertsitateak argitaratua, zeinean gaurko euskararen iragana aztertzen den, eta, baskoien hizkuntza indigenaz gainera, aipatzen den akitaniera, hortik izenburu konposatua. Eta esaten zaigun I. eta III. mende bitartean, Pirinioez iparraldean ez ezik, hegoaldeko zenbait tokitan ere mintzatzen zen euskararen forma zahar bat dela akitaniera. Kontxo. Zergatik ez gara jolasten hizkuntzari izena aldatzera: zergatik ez diogu gureari deitzen baskoniera-akitaniera, edo zuzenean, sinplifikatzearen, basko astunegia ere gainetik kentzeko, akitaniera. Izenak azken batean ez dira konbentzioak baino; baina aldatzeak ekar dezake izana ere aldatzea. Pentsa ze pisu arinduko genukeen, euskara beharrean –listo, desagertu da, ez dugu gehiago sufritu behar–, hemendik aurrera hasiko bagina hitz egiten dugun hizkuntza honi deitzen akitaniera. Horrek konektatuko gintuzke kontinentearekin gainera, sortzez penintsularrak garenok ere. Berriz jarriko lirake modan Anderexo, Sesenko eta gisako izen propioak. Eta bazter utziko genuke, azkenik, urte luzeetako karga agonikoa: kolpetik izango genuke hizkuntza bat usatu, maiseatu, itzulipurdikatzekoa. Hizkuntza normal bat, alegia. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"HLA ZEHATZA DUTENEK ARRISKU HANDIAGOA DUTE COVID-19 LARRI PASATZEKO"

STEPAN NERSISYAN, ERRUSIAKO UNIBERTSITATEKO IKERLARIA

Errusiako Unibertsitateko ikertzaileek azaldu dutenez, genetikoki determinatuta dago zelulek COVID-19aren aurrean immunitatez erantzuteko duten gaitasuna. Zeluletan immunitatea sortzearen arduradunak diren antigeno leukozitario molekulak (HLA-I) sei dira, eta haien osaketa bakana da gizaki bakoitzean, eta aurrekoengandik jasotzen da. "Gure ikerketan frogatu dugu HLA zehatza duten norbanakoek arrisku handiagoa dutela COVID-19 larri pasatzeko. Era berean, badira genotipo 'indartsu' batzuk, eta zaila da hauek gaixotasuna larri pasatzea". **SINC (2021/02/23)**

